


ezagutzen al duzu Donostia?

Platako farola

Itsas ontzi batean Pasaiako Portura sartzen garenean, *Pasaiako boka* berez, gure arrantzaleek deitzen duten bezala, -edo Pasaiako sarrera nahi baduzue- dago. Bere eskuin aldean harkaitz izugarri baten gain-gainean aurkitzen da *Platako itsasargia* edo *Platako farola* euskal herritarrek deitzen duten bezala. Harkaitzondo edo arroka erraldoi hau itsasoan «amiltzen» da izugarriko hutsunea eginez. Harkaitz handi hau Platako arroka deitzen dute gure arrantzaleek; aldiz, gaztelaniaz, «Frontón de la Plata» aipatzen du Pasaiako portuko Administrazioak bere idatzietan. Badirudi «Plata» toponimoa Uliamendiko ekialdekoa dela bereziki zeren bagenuen Port de Plat edo Bordeplat



Platako Farola Ulian.


deitzen zen baserri bat eta gaur egun ere bada Guardaplata bezala ezagutzen dugun etxe bat. Gaskoin kutsuko izen berezi hau ote da «Plata» toponimoa gorde duena? Agian. Baina Hondarribi, Pasaieta eta Donostiako arrantzaleek «Plata» deitzen diete kostako harkaitza edo

amildegi handiei, itsasotik begiratzen ditugularik dizdira edo printza zuriak egiten baitituzte, batez ere itsaso gaiztoarekin olatuak bustitzen dituenan. Kostako inguru hauek Orioko arrantzaleek eta Igeldoko baserriarrek beste izen batekin ezagutzen dituzte: «arlastra» = (harlastra).

Beraientzat ez da «dizdira» egiten duen harkaitza, beldurgarriko leku itsusi bat baizik. Han olatuak harrapatzen bazaitu ez da ziur bizirik aterako zarenik. Izan ere, zenbaitek bizitza galdu du harlastetan lanpernak hartzen.

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



kutxa fundazioa

fundación kutxa